

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gazako giza larrialdietarako Nafarroako Gobernuak emandako laguntza elikagaiak banatzeko erabiliko da

Proiektua 26.286 euroekin finantzatuta dago, eta banaketa Ekialde Hurbileko Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziak egingo du (UNRWA)

Viernes, 12 de septiembre de 2014

Gazako zerrendako giza larrialdietarako Nafarroako Gobernuak emandako [laguntza](#), 26.286 euro, inguru horretan udan honetan izandako gatazkaren ondorioz desplazatutako palestinarren artean elikagaiak banatzeko erabiliko da.

Banaketa hori Ekialde Hurbileko Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziak egingo du ([UNRWA](#)); elikagaien familia-paketeak desplazatuen aldi baterako beren harrera-zentroetan banatuko ditu, bi anoa eguneko, eta, hari esker, Munduko Osasun Erakundeak gomendatutako biziraupenerako gutxieneko kaloria-beharrak asebeteko dira.

Zehazki, giza larrialdietarako laguntza horrekin, lau astez 226 bat lagunentzako elikagaiak erosi eta banatu ahalko dira (bost kidez osatutako 45 familia), eta kopuru horretatik ia erdia adin txikikoak eta 111 emakumeak direla kalkulatzen da.

Pertsona bakoitzak sorta bat jasoko du, bi anoekin –eguneko bi otordutarako– honako elikagai hauekin, esaterako: zortzi ogi, hamar datil, haragi-lata bat edo ontziratutako atunarena, bi esneki, lau te-poltsa, hiru litro ur mineral, bi tomate (astean hiru aldiz), bi pepino (astean hiru aldiz) eta sagar bat (astean hiru aldiz).

Elikagai-pakete horren asteko kostua 35 dolar da pertsonako; nolana ere, alda daiteke elikagaien prezioen gorabeherengatik eta dibisen aldaketa-motagatik. Dena den, Nafarroako Gobernuaren laguntza elikagaiak erostera mugatuko da ia, proiektu hori burutzeko beharrezkoak diren gainerako kostuak (erosketarako lizitazioa, banaketa, kontrola...) UNRWArekin aurrekontu erregularraren kargu geratuko baitira.

Gaza eta UNRWArekin egoera

Uztailaren 7tik abuztuaren 26ra, Israelgo armadak "Margen protector" izeneko operazio militarra egin zuen Gazako zerrendan. Operazio horretan 2.150 palestinarr hil ziren, eta haietatik 503, adin txikikoak. Gainera, 11.000 pertsonatik gora zauritu dira eta 108.000 etxerik gabe geratu. Bonbardaketek 118 eskola, 67 ospitale eta klinika eta 360 saltoki edo negozio kaltetu dituzte ere.

Desplazatutako biztanleei arreta emateko, Ekialde Hurbileko

Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziak (UNRWA) 81 eskola antolatu zituen eta 300.000 pertsona hartu ziren bertan. Gaur arte, 65.000 desplazatutako erakunde horretako aldi baterako 21 babes-zentroetan jarraitzen dute.

UNRWAK aurkeztutako proiektuaren arabera, "desplazatutako familia horiek heriotza ziur batetik ihes egin dute inolako ondasunik gabe, inolako babesik gabe daude, elementu oinarritzkoenak ere izan gabe, elikagaiak, esaterako. Horrek dakar biztanleen artean elikagaien segurtasun eza modu dramatikoan handitzea, beren biziraupena arriskuan jarritz".